

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

50/2025 Foru Agindua, apirilaren 16koa. Karrerako funtzionario izendatzea karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzaile klasea, 19017 deialdia, Sukaldaria, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko lan-eskaintza publikoaren egonkortzeko salbuespenezko prozesuari dagokiona

Abenduaren 26ko 170/2022 Foru Agindua (maiatzaren 25eko 186/2023 Foru Aginduak aldatua) zeinaren bidez oinarri orokorrak onartzen baitira aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko lan-eskaintza publikoaren egonkortzeko prozesuari dagokiona.

Azaroaren 21eko 118/2024 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari dagokiona, 2022ko lan-eskaintza publikoan administrazio berezia, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzailearen klasea, 19017 deialdia, sukaldaria. Hainbat pertsona izendatu zituzten, besteak beste, 18592404 NAN zenbakia zuena. Pertsona hori derrigorrezko epean jabetu da lanpostuaz, eta, etenik gabe, eszedentzia eskatu du lanpostua gorde gabe.

Abenduaren 26ko 170/2022 Foru Aginduaren 11.3 oinarrian xedatutakoaren arabera, karrerako funtzionario izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badu, hutsik uzten duen lanpostua esleitu ahalko da. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da. Horri dagokionez, 170/2022 Foru Agindu horren 11.2 oinarriak izendapenen proposamen osagarria egitea aurreikusten du.

Aurrekoarekin bat etorritik, Epaimahai Kalifikatzaileak, 2025eko apirilaren 14an, 18595316 NAN zenbakia duen pertsona proposatu du, hautatutakoen behin betiko zerrendan hurrengoa dena.

Horrela, oinarri orokor horietako 11.1 aurreikusitakoaren arabera, behin izendapen-proposamena hautatuen behin betiko zerrendaren bidez jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuari dagokio, foru agindu bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izendatzea behin betiko zerrenda horretako kidea.

Aipatutako oinarri orokorrak betez eta funtzio publikoaren arloan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duena,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario izendatzea ondoko pertsona hau, administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, teknikari laguntzaile klasea, sukaldaria, eta adierazitako lanpostuari atxikita lan-eskaintza publikoari dagokion deialdiaren emaitza gisa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko aldi baterako enplegua egonkortzeko:

NAN	LANPOSTUA
18595316	53.008 Sukaldaria

Bigarrena. Izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe horri hamabost (15) egun naturaleko beste bat gehitu ahal izango zaio izangaiak hala eskatzen badu, betiere, ezinbesteko arrazoi justifikatua tartean bada. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen funtzionario-izaera eskuratzeko eskubide guztiak galduko ditu, deialdiaren ondorioz.

Hirugarrena. Funtzionario sartu berria esleitutako lanpostura behin betiko atxikitzea, ondorio guztietarako, lanpostuak betetzeko gordeta dagoen sistemaren bidez lortutzat joko da.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari loturik– aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
MIREN SARATXAGA DE ISLA